


A T Z O K O  
**Andoain**

14. zbk.

2000ko martxoaren 26a.

eta andoaindarrak  
**ando  
ainda  
rrak**



**Lantegiak (1)**



# ANDOAIN, ASPALDIKO INDUSTRIA GUNEA

**B**izitzan lana da gauzarik garrantzitsuenetakoa. Haren arabera moldatzen dugu bizitza, eta hari esker etxeratzen ogia. Industria jarduerak baldintzatu ditu hein handi batean andoaindarren bizi ohiturak historia gertuan, XIX. mende amaieratik gaurdaino. Baserria utzi eta kaleratu ziren andoaindar asko. 1857an Algodonera sortzeko egin zen lehen kapital bilketa, eta langile askoren jarduna izan zen urte askotan. Lanaz gain, ordea, bizitza osoa lantegiaren inguruan antolatzeko moduko eskaintzak zituen gainera. Algodoneraren itzalean jaio eta hezi izan dira andoaindar asko. Nork ez du izan aitona, ama, ahizpa edo anaiarik hantxe Algodoneran lanean?; Noren ezagunik ez da izan hango hartzaindegian?; nork ez du erosi hango kooperatiban?... Bestalde, aitzindari izan da hainbat giza neurri ezartzerakoan, eta hori guztia Subijana izenari loturik dator. Alejandro Subi-

jana jaunari buruz kontatutako kontuekin soilik liburu egin daiteke.

Algodonerak sortutako industriarekin batera Andoain atzerabiderik gabeko urratsak ematen hasi zen gizarte modernoruntz, eta garai berrietan sartuz joan zen pixkanaka. Bide horretan lantegi asko izan dira, denak aipagarri, nahiz eta batzuk alde batera utzi beharko ditugun.

Baserri askoren artean zeuden kale sakabanatu batzuetatik etxeak pilatzen diren herri handia izateraino urte batzuk igaro dira, eta baita denbora horretan makina gauza gertatu ere. Orain dela ez asko gauzak oso bestelakoak ziren, oso ezberdinak, eta horiek dira, hain zuzen hementxe idatzitakoak. Algodonera eta Moleda lantegiak izan ditugu lehen mintzagai. Mende luze bateko industria jarduerari buruzko kondairaren hasiera besterik ez da.

## ALGODONERA


### Industria lehen urratsak

Urrun geratu da, Andoaingo oletan burdin jarduera nagusi zen garaia. Baina, industria dinamika oparoaren hasiera izan zen olen amaiera, eta orduko garaietara jauzia egin dute

gertuko historiaren lekuko diren hizlariak. Hala bada, 1857ko datarekin erregistroan azaltzen dena izan du abiapuntu Bixente Olanok: "Lehenengo fabrika erregistroan azaltzen da

1857an. Julian Zulueta, Luis Mariategi eta Ramon Armero kapitala biltzen hasi ziren urte hartan. Orain Errota deitzen dioguna garai batean Azelaingo señoritoarena zen. Aurrena Azelain Ola izena zuen, eta gero Azelain Errota. Bilbon burdina kantitate handitan egiten hasi zirenean, hemengo olak joan ziren behera. Hor geratu zen Azelaingo Errota. Azelaingoa amaitu ondoren etorri zen Algodonera".

Algodonera izan da, dudarik gabe, lehen industria jarduera garrantzitsuen Andoainen. Bertan aritutako



Algodonera Guipuzcoana S.A.-ren argazki zahar bat.



Bixente Olano

"Espainian zen fabrikarik konpletoena dela jartzen du erregistroan. Katalunian egiten zuten fabrika batean haria. bestean tela... Hemen denak egiten ziren. 200 telare zituen Algodonerak"

andoaindarrez gain, biztanleengan izan zuen eragina ikusiko dugu datozen lerroetan. Gizarte modernoaren ezaugarriak barneratuz joan ziren, hemen ere, Andoainen.

1857an sorrera, eta 1862an artilez eta algodoiez egindako ehunen lantegi gisara azaltzen da Algodonera erregistroan. 1866rako 550 langilek egiten zuten lan. Bixente Olanok bildu ditu erregistroan agertzen diren datuak. "Espainian zen fabrikarik konpletoena dela jartzen du. Katalunian egiten zuten fabrika batean haria, bestean tela... Hemen denak egiten ziren. 200 telare zituen Algodonerak. Gehienetan emakumeak zeuden lanean".

Olano Algodonerako lekuko garrantzitsua da. Historia paperak goitiki behera miatzeko zaletasuna izateaz gain, Algodoneran bertan jaioa baita. Haren aitak, kontadore merkantila izaki, lanpostu garrantzitsua zuen: Subijanaren hurrena zen, arduradun adminstratiboa. Sinadurarik ez zuen, baina bai pisu handia.

"Gipuzkoan lantegi garrantzitsuenetakoa zenak, une zailak izan zituen mende honen hasieran. 270 langile zituen orduan, 1907an baino gutxiago. Xeferino Ansak eta Francisco Zipitriak hartu zuten orduan fabrikaren ardura, baina ez zuten martxa ona izan, eta porrot egin zuten. 450 langile geratu ziren Andoainen lanik gabe. Herri guz-



Miguel Amas:

*"Nire familian Frantxisko Egibar aitona han ibilia zen. Ama, aita eta Margari arreba ere bai. Aita bederatzi urterekin hasi zen lanean".*

tia geratu zen langabezia. Orduan hasi zen ferrokarrila, RENFE, eta langile gazte asko hara joan ziren lanera, eta beste asko beste toki batzuetara. Nolanahi ere, kale gorrian geratu ziren asko: langabezia kobratu gabe, eta aurrezkerik gabe. Orduan ez zegoen horrelakorik". Horiek Olanoren hitzak dira.

"Algodonera lehen aldiz itxi zutenean mendira ere gazte asko joan zen lanera", gaineratu du Joxepa Ormaetxeak.

Lau urte itxita egon zen lantegia. Baina porrotaren ondoren Alejandro Subijanaren garai oparoa iritsi zen. Bixente Olano jaio baino piska bat lehenago hartu zuen Subijanak, 1918 inguruan. Haren gidaritzapekoak izan ziren Algodonerako urte garrantzitsuenak; haren gerizpean hazi ziren andoaindar langile asko eta haien

senideak.

Miguel Amasek, beste askok bezala, ia sendi osoa izan du Algodonerako langile: "Nire familian Frantxisko Egibar aitona han ibilia zen. Ama, aita eta Margari arreba ere bai. Aitona bederatzi urterekin hasi zen lanean".

"Ni Laborden aritu nintzen, baina ahizpek han egiten zuten lan, eta amak ere bai", dio Miren Zarragak; Joxe Mari Olazabalek, berriz, hauxe: "Garai hartan Andoaingo emakume gehienek egiten zuten han lan".

Historian aurrera eginez, Subijanek Andoaingo lantegiarekin batera Villabonan lantegi bat zuen, eta biek egin zuten porrot. "Azken jabeak Azkarate anaia bergararrak izan ziren. Algodonera elkarte anonimoa zenez, Anbrosio Zatarain akziodunak saldu egin zituen akzioak. Azkaratetarrak orduan sartu ziren, eta Subijana erretiratu egin zen. Azkaratetarren ostean, Matxinbarrena abizeneko jabea izan zuen Algodonerak", adierazi du Bixente Olanok.

1965ean lantegia ateak itxear zegoela, langileek jarduerarekin jarraitzeko eskaria egin zuten agintarien aurrean. "Fabrika zaharrena zela eta esanez idatzi bat egin zen, eta Matxinbarrenari egin zitzaion ez itxeko eskaria. Baina ezin izan zen ezer egin, eta Algodonera itxi zen", azaldu du Joxe Mari Olazabalek.

## Errespeto handia nagusiari

Algodonerako gerente Subijana izan zeneko garaian, haren izaeraz ezezik, garai hartan martxan jarri zituen gizarte zerbitzuengatik ere eza-gun zen. Haurtzaindegia, kooperatibak, eta erretiroa izan ziren, besteak beste, hark lehen aldiz Algodoneran ezarri zituen zerbitzuak. Andoaindarrak ahotan dituzte hark abian ezarritako zerbitzu horiek denak. Bere izaera, oster, "jauntxo feudalen parekoa" zen, Olazabalen ustez: Apaizei eskaintzen zitzaion errespeto maila zuen herrian.

Horra hemen nola deskribitzen duten andoaindarrek Subijana: "Gogorra zen, baina fabrika oso ongi organiazturik zuen". Oso garrantzitsutzat zuen bere burua Subijanak Olanoren ustez: "Ez baita konprenitzen bere aurrean txapela kendu beharra, apai-zen aurrean bezala. Kolegiotik etor-

tzen nintzenez gurasoak agurtu, eta gero nagusiarengana joan behar izaten nuen. Esplikazio guztiak eman behar, ordurako aitak emanda izango zituen baina. Gerratik permisoarekin etorrira ere harengana esplikazioak ematera joan behar izan nuen".

Iñaki Arregik, berriz, osabaren pasadizuak ekarri ditu gogora: "Nire osabak aurpegia zuen, erreklamatzeko zekien horietakoa zen. Subijanarengana joan izan da. Bizar zuri-zuria omen zuen, eta eserita zegoela galdetzen omen zuen bizarra gora eta behera igurtziz: 'Zer nahi zenuten zuek ba?' .

Bixente Huizik Arregik esandakoari zertxobait erantsi nahi izan dio: "Bai, baina, hala ere, erreklamazio gutxi. Erregearen agurra egiten zitzaion hari. Ni hango guarderian hazitakoa naiz. Aita eta ama han aritu ziren lanean, eta ni txikitari han. Errege-

egunean denok izaten genuen oparia. Mojekin egoten ginen, eta guarderiarra etortzen zen bera opariak ematera". Subijana "erabat paternalista" zen Joxemari Olazabalek gehitu nahi izan duenez.



Bixente Olano

*"Ez baita konprenitzen bere aurrean txapela kendu beharra, apaizen aurrean bezala. Kolegiotik etortzen nintzenez gurasoak agurtu, eta gero nagusiarengana joan behar izaten nuen.*

## Orduen neurria

Lanorduak ere gaurkoak baino makina bat gehiago egiten zuten orduko langileek, hamar inguru. "Lan asko egin eta gutxi irabazi", izaten omen zen ohikoena Maria Esther Arrietak adierazitakoaren arabera.



Miguel Amas

"Leon XIII.ena zortzi orduen alde zegoen. Algodoneran, 10:00etan gosaltzera atera baino lehen, errosarioa erreztatzen zuten Aita Santuaren konbertsioa eskatzeko; komunismoa etorriko zela eta..."

Leon XIII Aita Santua izan zeneko garaia ekarri du gogora Miguel Amasek. Izan ere, "Leon XIII.ena zortzi orduen alde zegoen. Algodoneran, 10:00etan gosaltzera atera baino lehen, errosarioa erreztatzen zuten Aita Santuaren konbertsioa eskatzeko; komunismoa etorriko zela eta..."

07:30 eta 08:00ak artean sartzen ziren langileak lanera. "07:30etan kanpaia jotzen zuten, eta zortziak bost gutxietan berriz ere kanpaia, oraindik ere sartu ez zirenentzat. Emakume guztiak ume karroekin korrika joaten ziren. iristen ez baziren atea ixten zuten, eta han geratzen ziren. Eguerdian irteteko, berriz, tutua jotzen zuten. Bazkalostean, berriz errepikatzen zen. Sartzeko kanpaiak, eta atera-

## Argindarra

Aspaldiko garai haietan ez zen lan makala makinak lanean jartzea. Algodoneraren ibilbidearen hasieran, ura behar eta Makaldegia ondoko Azpikoerrotari erosi zioten ura erabiltzeko eskubidea. "Makaldegia ondokoa" erreibindikatu nahi izan du Bixente Olanok, orain erabiltzen den Txopera hitza inbento berria dela eta-\_. "Azpikoerrotaria zentrala zen. Orduan ez zen indarririk kabletik eramateko. Transistoreekin mugitzen zen makinaria guztia. Telare eta makina guztiek bi polea zituzten. Bat punto muerton izateko", dio Olanok. Lehenik bapora makina



Garai haietan ez zen batere erraza fabrikak lanean jartzea.

zuzteko tutua.", azaldu du Miren Zarragak. "Inork ez zuen erlojurik, eta kan-



Miren Zarraga

"07:30etan kanpaia jotzen zuten, eta zortziak bost gutxietan berriz ere kanpaia, oraindik ere sartu ez zirenentzat. Emakume guztiak ume karroekin korrika joaten ziren. iristen ez baziren atea ixten zuten, eta han geratzen ziren. Eguerdian irteteko. berriz, tutua jotzen zuten.

paiekin eta tutuekin bagenekien zein ordu zen. Bestela, elizako erlojuari begiratzen genion", dio Joxemari Olazabaek.

Hori gure solaskideen gazte garaietan Algodoneran zuten ordutegia zen, baina urte batzuk atzerago are gogorragoa izaten zen lan jarduna. "Aitonak kontatzen zuenez, goizeko laueta-tik hamarrak arte egiten zuten lan, eta hamabietan berriz ere, nagusiak bidali arte" esan du Miguel Amasek. "Nik galdetu izan dut behin baino gehiagotan", gaineratu du, "zer egiten zuten bederatzirterekin hainbeste ordutan, eta hara zer erantzun jasotzen nuen: 'kanilak bildu eta hiru erreal irabazi'".

martxan jartzen zuten, eta gero erantsen zitzaion Azpikoerrotako indarra.

Oria ibaian zeuden presa guztiak erabiltzen ziren Algodonerara argindarra eramateko: "Jendeak galdetzen omen zuten: horrenbesteko zaldiren indarra nola pasako ote da kable txiki horietatik?", esan du Joxe Mari Amutxastegik. Baina izaten ziren, udan eta, Azpiko Errotan ur emari txikiko garaiak ere. "Azpikoerrotan indar gutxi samar zegoenean, beste makina bat zegoen, ikatza eta egurra erabiliz mugitzen zena.

Pasaitik tranbian ekartzen zuten

ikatza. Espainian lehenengoa izan zen kablez indarra bidaltzen zuena. Modernoak ziren garai hartan".



Joxe Mari Amutxastegi

"Jendeak galdetzen omen zuten: horrenbesteko zaldiren indarra nola pasako ote da kable txiki horietatik?"

## Gizarte zerbitzuak

Alejandro Subijanak bazekien agintzen. Baina horrez gain, hainbat zerbitzu ezarri zituen langileen eskura, garai hartarako berritzaileak: Haurtzaindegia, esate baterako. Aipatu dugunez, Bixente Huizi, adibidez, hain ibilitakoa da.



**Bixente Huizi**

"Amak ateratzen ziren bularra ematera, eta Subijanak uzten zien bularra ematen behar adina denbora. Tailerretik guarderiara joaten ziren emakumeak".

Hala bada, langileek ez ezik, euren seme-alabek ere Algodoneran igarotzen zituzten lehen urteak. Algodoneran lan egiten zuten amek haurrak izan eta hamabost egun ingurura uzten zituzten Subijanaren haurtzaindegian: "Amak ateratzen ziren bularra ematera, eta Subijanak uzten zien bularra ematen behar adina denbora. Tailerretik guarderiara joaten ziren emakumeak", dio Huizik.

"Kaletxikiko karitateko mojek zaintzen zituzten haurtzaindegiko haurrak", gaineratu du Maria Esther Arrietak.



**M. Esther Arrieta**

"Algodonerako emakumeen haurrak Kaletxikiko karitateko mojek zaintzen zituzten".

Suhiltzaileak ere bazituzten, zerbait gertatuz gero: "Bonberoak ere bazituzten. Karro handi bat zuten zaldiekin, eta probak egiten zituzten zortzi, hamar bat langilek; surik piztuko balitz hura itzaltzeko saioak egiten zituzten".

Maileguak ere eskaintzen zituen Subijanak: "Nor bait gaixo jarritz gero, orduan ez zegoen gaixotasun segururik, ez eta beste ezer eta dirua aurreratzen zion jendeari. Harengana joaten ziren langileak. Dirua aurreratzen zuen, eta ahal zenean itzultzen zitzaion, astero soldatatik diru bat kenduta edo... Garai hartan astero jasotzen baitzen ordaina. Emakumeek tela beharrez gero ere, buzoetarako edo beste edozertarako, oihala ematen



**Joxe Mari Olazabal**

"Espainia mailan 1921ean jarri zuten erretiroaren legea. Baina, orduan ere Gipuzkoa aurrelaria izan zen. Sortu ziren 20 bat enpresa boluntario erretiroarena martxan jartzeko. Hiru urte lehenago; horietako bat Algodonera".




Algodoneran suhiltzaileak ere bazituzten. Argazki honetan ageri direnak, nolana ere, ez dira hangoak. Molelan behin piztu zen sutea itzaltzen aritu zirenak dira.

zuen, eta ahal zenean ordaindu", ekarri du gogora Bixente Olanok.

Horrezaz gainera, erretiro saria antolatzen lehenengoetarikoa izan zen. Garai hartan langileek ez zuten jubilaziorik, eta ahal zuten arte aritzen ziren lanean. Espainian jubilazioaren legea 1921ean ezarri zuten abian, baina Andoainera, Gipuzkoako hainbat lantegietara bezala, lehenago heldu zen neurri hori.

izan zen. Sortu ziren 20 bat enpresa boluntario erretiroarena martxan jartzeko, hiru urte lehenago; horietako bat Algodonera. 1918an hasi ziren ordaintzen erretiroa", argitu du Jose Mari Olazabalek.

"Erretiratu artean xoxak aurrezteko kartilla ere izaten zuten langileek. Kutxara joan beharrean bertatik bertara izaten zuten. Interesak ere altuagoak emango zituen Subijanak".



Algodoneraren beste irudi bat. Honetan lantegiko eraikuntzak hondatuta ikusten dira.

## Kooperatibak

Lantegian xoxak irabazi eta haiek lantegian bertan inbertitzeko modua ere ezarri zuen Subijana ugazabak, kooperatiben bitartez. Onurak nagusiarentzat eta langileentzat ziren, hizlarien arabera. Subijanak lehenik denda bat jarri zuen Etxeberrietan, 'La protectora'. izenekoa. Nahi zuen langileak jar zezakeen dirua kooperatiba horretan. Langileak pezetak edo duroak jartzen hasi ziren. Baina dirurik ez zuen langileak ere eros zezakeen han.

"Algodonerako langile bezala hara joan, eta dirurik gabe erosten zuten. Dirurik gabe eroatera joaten zenak apuntatzeko eskatzen zuen", dio Bixente Huizik.

"Kooperatiban erosten zutenei orri bat ematen zieten. Goizean askotan ogi bila joan, eta arratsaldean ostera zerbaiten bila, han apuntatzen ziren erositako guztiak", dio Olanok.

Beraz, kooperatiban mailegaturik hartzen zituzten produktuak bezereak, ahal zenean ordaintzeko. Gastatutakoaren arabera, urte amaieran saria izaten zen: "Urtean ehuneko

hainbestekoa jasotzen zuten bezereok, bezero guztiak, ez soilik Algodoneran lan egiten zutenek. Horrezaz aparte akzionista zirenek dibidendoa eskuratzen zuten".

Algodonerako langileez gain, edonor joan zitekeen kooperatibara erotera, eta hori zela eta inguruko dendak haserretzen ziren, zaila baitzen kooperatibak ematen zituen erreztasunen parean ezartzea.

Lehen kooperatiba hark izugarriko arrakasta izan zuen, eta beste hainbat kooperatiba zabaldu ziren

ondoren. "Etxeberrietako kooperatiban gauzak ongi zihoazenez, Braulio Luis de Larrinaga buru, Zubiaurren, Arregineko harategia dagoen lekuan, 'La Principal' jarri zuten. Hura ere ongi zihoanez, Emeterio Aranburuk Kaltetxikin ireki zuen hirugarren kooperatiba.

Patxiku Saltsasi Zubiaurrekoak zerriak erosten zitueneko garaiak gogoan izan dituzte gure hizlariak. Horren kontura nahikoa barre ere egin dute: "Zerriak erosi ondoren Simon Ormazabalek hiltzen zituen mataderoan. Lukainkak eta odolkiak egiten zituen, eta han egoten ziren zintzilik lehortu arte". "Haiek bai lukainka eta odolki onak, ez baitzuten zerri haiek ezer txarrik jaten", dio Olanok.

Gerra iritsi zen, eta gerrarekin batera kooperatiben gainbehera. "Arrazionamenduak ezarri zituzten, eta kooperatibek ez zuten irabazirik ematen. Orduan ezin iraun, eta kooperatibak saldu egin zituzten, eta denda bihurtu ziren", adierazi du Roke Ansak.



Bixente Huizi

"Langile bezala kooperatibara joan, eta dirurik ez zuenak apuntatzeko eskatzen zuen"

## MOLEDA


Ez Algodonera bezain handia, baina garrantzitsua izan zen Moleda lantegia ere. Zepiloak, pertsianak, pertxak, barrikak... Denetarik egiten zuten Moledan. "Hasieran goian, estazioaren ondoan hasi zen fabrika, baina gero behealdean ere zabaldu zuten. Goian egurrekin egiten genuen lan, eta behean, berriz, burdinarekin". Manuel Elola 42 urtetan han lanean aritua da. 1934 urtean hasi zen oraindik Moledak lantegi bakarria zuenean, eta 1976 urtera bitartean hantxe izan zen lanean, lantegia itxi zuten arte. Ongi ezagutzen ditu berak hango jardunak: "Joxe Moleda eta Joxe Treku izan ziren gerente. Ondoren Candido Nazabal. Nagusi asko izan ditut urte horietan. Pentsa 42 urtetan!".

Noiz itxi zuten lantegia oso ongi gogoratzen du Elolak, askorentzat oso gogorra izan baitzen, berak lana topatzeko zailtasunik izan ez zuen arren. Ordea, ez du gogoan zein urtetan sortu zen lantegia. Miguel Amasen arabera, berriz, "1908 eta 1910 bitartean sortu zen. Aitari Trekuk berarekin lan egiteko esan baitzion".



Manuel Elola

"Leku askotan jarri ditugu Moledako pertsianak. Ni Espainian leku askotan egona naiz pertsianak jartzen. Orduan ikasi nuen erderaz, gaizki baina".



Moleda enpresaren instalakuntzak, atarian lantzeko egurra pilatuta ageri dela.

Hamalau urte bete gabe zituela hasi zen lanean Elola Moledan; "Inspektorea etortzen zenean gorde egin behar izaten genuen, debekaturik baitzegoen hain gazterik lan egitea".

100 langiletik gora zituen Moledak. Elola hasieran Moledan egiten ziren produktuak pintatzen hasi zen, eta piskanaka ofizioak ikasiz joan zen. Emakumei lana jartzen aritzen zen: "Oso iaioak ziren emakumeak lanean". Ondoren pertsianak jartzen ibili zen montadore: "Leku askotan jarri ditugu pertsianak. Ni Espainian leku askotan egona naiz pertsianak jartzen. Orduan ikasi nuen erderaz, gaizki baina". "Pentsa zenbat pertsiana egingo zituzten, Periko Billabona, Usandizagak, Pagolak, Elolak, Antonio Etxeberriak, Moisesek eta beste hainbatek egiten baitzuten montadore lana. Moledako per-

tsianak oso garrantzitsuak izan ziren Espainia osoan zabaldurik baitzeuden", dio Iñaki Arregik.

Miguel Amasek adierazi duenez, "beheko lantegiari 'La pequeña Rusia' deitzen zion Trekuk, protesta asko egiten baitzuten han lan egiten zutenek. Muturrean jo deskuidatuz gero".

"10 ordu eta 3,50 pezeta irabazten genuen egunean. Ez zen asko ez. Nahikoa larri ibiltzen ginen horrekin. Oporren garaia ezarri zutenean, lehenik astebete, gero bi eta ondoren hilabete, beste leku batzuetan aritzen ginen lanean. Larunbatak ere lan egiten genituen. 'Sábado inglés' berria da".




Iñaki Arregi

"1933an 24 industria eta 530 langile zeuden Andoainen. 1963an, berriz, 69 industria eta 2.820 langile".

Moledaren ostean, beste hainbat lantegi aipatu behar dira, baina datoren alerako utziko ditugu.

Kontuak kontu, "1933an 24 industria eta 530 langile zeuden Andoainen. 1963an, berriz, 69 industria eta 2.820 langile", Iñaki Arregik emandako datuen arabera. Urte haietan "hemen-goak kanpora lanera joaten ziren 227 pertsona, eta kanpotik hona etortzen ziren 385. Andoainen ez zegoen langabezirik".



Moleda lantegiaren ikuspegi orokorra.

# ... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Konturatu zarete zenbaki hau irakurrita Andoaingo garai bateko lantegi inportanteenen bi adibideren gainean bakarrik aritu garela. Esan dugu makina bat bazirela orain mende erdiko buelta hartan. Denak, ordea, ezin aipatu eta gutxi batzurekin konformatu beharko dugu. Baina ez ale honetan topatu dituzun bi horiekin bakarrik, ez. Hurrengoan, apirilekoan, lantegiei buruzko kontakizunari emango diogu segida. Laborde fabrikarekin hasiko gara eta Bonbasekin jarraitu. Bakoitzak bere aldetik ematen du liburu batean biltzeko adina pasadizo eta kontu. Apirileko azken aste-buruko zenbakirako bilduko ditugu zenbaitzu.



???????????

## Okerrak zuzenduz

Andoain gutxi gora behera gaur den bezalakoa ezagutu dugun gazteoi ezezagun egiten zaizkigu maiz gure hizlariak deskribatzen dizkigutenak, eta tarteka, hanka ederki sartzen dugu haiei buruzkoak idazterakoan. Aurreko alean Upategikoak mendira ganadutara jotzen zutela idatzi genuen, eta etxe hartakoek zehaztu digute ezetz, ganadutara ez baizik garotara joaten zirela. Bestetik, Egibar baserririk ez zela zehaztu beharrean gaude. Egibartarrek Sorabillan zuten baserriaz ari ginen hura idatzi genuenean.



Franco diktadoreak Bonbasera egin zuen bisita.



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren dirulaguntzaz. **Zuzendaritza:** Jone Larrañaga. **Erredakzioa:** Amagoia Mujika **Maketazioa:** Eva García. **Argazkiak:** Udal artxiboa. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.